



# 'DOLTZA' ANTZEZLANA GAUR LEIDORREN

20:30ean hasiko da On Kixoteren inguruko lana; Tolosako hiru aktorek hartuko dute parte bertan 3

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Ostirala  
2010-10-01

VIII. URTEA 2.088. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

NEREA AMILIBIA KORRIKALARIA

## «Azken lasterketari beldurra diot, 4.100 metrotara igo behar da»

**ZIZURKIL** Munduko Kopan hirugarren postuan aurkitzen da 39 urte dituen mendi lasterketako korrikalaria

**AZKEN PROBA** Malaysian jokatu den lasterketan Kinabalu mendia igo eta jaisi egin beharko dute 4



HITZA

## IV. Aurrera Eguna ospatuko dute bihar

**LEITZA** 09:00etatik aurrera, egun guztiko egitarauaren baitan, Kirol Elkarteak osatzen duten hainbat talde kalera irtengo dira 6

**IMANOL UBEDA**  
ABESLARIA

«Lan berriarekin  
betiko Bide  
Ertzean-era  
itzuli gara»

**TOLOSA** 'Don Inorrez' diskoa guztietan akustikoena izan daitekeela dio taldekideak 2



HITZA

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza**  
bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 beheak • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31160 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

E **Elkarrizketa****IMANOL UBEDA** › Bide Ertzean taldeko abeslaria

Karlos Arancegui, Imanol Ubeda eta Joni Ubeda zuzeneko batean. HITZA

# «Don Inorrezen bitartez gure azken hiru urteetako gorabeherak isladatu ditugu»

**Musika** › Bide Ertzean taldeak 'Don Inorrez' lan berria aurkeztu du; euren jatorrizko musikara itzuli dira inoizko diskorik akustikoenean.

**INIGO TERRADILLOS**

Zuzeneko diskoa egin zutenetik sormenari eta entseguetara zieten lekua Bide Ertzean taldeko ki-deek. Hilabeteotako lanak eman du fruitua eta disko berria dute esku artean tolosarrekin, *Don Inorrez* (Gaztelupeko Hotsak). Zortzigarren lan honekin Bide Ertzeanen jatorrizko musikara itzuli dira dela azaltzen du Imanol Ubeda abeslari eta gitarra-jotzaileak.

**Nondik dator diskoaren izenburua?**

Urola aldean erabili izan da Don Inorrez haurrak beldurtzeko-edo helburuarekin. «Ez bazara ondo portatzen Don Inorrez etorriko da eta barearekin eramango zaitu». Horrelakoetarako erabiltzen zen.

Jose Luis Otamendi idazlearen bidez jakin genuen hori. *Don* eta *Inorrez*-en kontraste horrek joko handia ematen du, eta guri oso deigarria egin zitzaigun. Zer pentsatua ere ematen du, gainera, izan ere, Don Inorrez berak ere beldurrak izango zituen, eta bestelako bizitzako gorabeherak ere bai. Azken batean, Don Inorrez pertsonearen bitartez gure azken hiru urteetako gorabeherak isladatu ditugu diskoan.

**Musikalki nolako diskoa da?**

*Leidor Sessions* azken diskoarekin alderatuz biluziagok eta akustikoagoak dira kantua. *Leidor Sessions*-ek bazuen festa edo euforria giro edo zentzu bat, izan ere ospakizun moduko bat zen. Orain,

berriz, betiko Bide Ertzean izatera itzuli garela esan daiteke, estilo ezberdinetako doinuekin. Hori bai, agian inoizko diskorik akustikoen da.

**Horren beharra sentitzen zenetako?**

Abestiek eta hitzek hori eskatzen zutelako izan daiteke. Ez dugu baztertzuten hurrengo diskoa rockeroagoa izatea, baina une honetan horrelako zerbait egitea zego-kigun. Gorputzak eta bihotzak horrelako disko bat eskatzen zigun.

**Disko honetan ohiko taldekideak aritu zarete.**

Boskoteak jarraitu du lanean lan honetan. Horrez gain, Euskadiko Orkestra Sinfonikoko hainbat musikaririk ere parte hartu dute, eta horiekin zortzikote bat osatu dugu, zortzi musikariz osaturiko hari orkestrabat. Joserra Senperena gure piano-jotzailearen aginduetara egon dira musikari hauek. Hain zuzen ere, berak proposatu zuen

abesti batzuetarako hari orkestra batekin oso ondo uztartu zitekeela eta musikariak ere berak proposatu zituen. Azkenean lau abestitan hartu dute parte. Hori izan da disko honen berrikuntza edo balio erantsia.

**Diskoa osatu duzue, eta hurrengo pausoa jendeari erakustea izango da, ezta?**

*Leidor Sessions* diskoarekin egin genuen bezala, ekitaldi batzuk egingo ditugu zaleekin lana erakusteko, eta horietan kanturen bat edo beste joko dugu akustikoen. Hori promozio lan modukoa izango da, eta Euskal Herriko hiriburu-erretako Fnac eta Elkar dendetan egingo dugu. Urriaren eta azaroaren egingo dugu hori, eta kontzertuak ondoren etorriko dira. Abenduaren 7an, esaterako, Durangon joko dugu Liburu eta Diskoen Azokaren bueltan, abenduaren 10ean Bermeoko Kafe Antzokian joko dugu eta abenduaren 16an Donostiako Victoria Eugenia ariko gara.

**Tolosan ere izango duzue kontzerturik.**

Oraindik ez dago ezer aurreikusita, baina espero dugu horretarako aukera izango dela.

**Izan ere, zuen lan berria etxean aurkeztea berezia izango da.**

Bai, noski. Gogo berezia dugu Topic zentroko aretoan emanaldia eskaintzeko. Oso toki ederra da eta kontzertuetarako oso leku egokia dela uste dugu. Leidorrera ere oso gustura itzuliko gineteke. Oraingoz, abenduan behintzat ez dela izango esan dezakegu, beraz, aurrerago beharko du izan.

**Zuzenekoetarako gogo handiz al zaudete?**

Bai. Gogo handiz gaude. Nik jendea animatuko nuke kontzertuetara joatera lan berria ezagutzera. Gipuzkoarrentzat, esaterako abenduaren 16an izango da aukera Donostian, leku eder batean.

**'Leidor Sessions' zuzeneko diskoak zuen ibilbidea markatu duela esango zenuke?**

Koxka moduko bat izan zen guretzat. Erronka handi bat zen, guk ez baikenuen inoiz zuzenkorik gra-

**«Betiko Bide Ertzean-era itzuli gara, eta lan hau guztietan akustikoena dela esan daiteke»****«Balio erantsi bezala, Orkestra Sinfonikoko hainbat musikaririk ere hartu dute parte diskoan»**

batu. Fran, Joserra eta Karlos taldeko musikariek beste artista batzuekin grabatua zuten zuzeneko diskoa, baina Bide Ertzean bezala ez. Orain, urtebete pasa delarik, oso oroitzapen onak gordetzen ditugu, oso pozgarria izan baitzen guretzat horrelako lan bat egitea. Gure asmoa zen Bide Ertzean taldearen zuzenekoak erregistratuta geratzea, horren testigantza utzi nahi genuen. Emaitzarekin oso pozik geratu ginen. Jende askok hartu zuten parte, eta mimo handiarekin egin genuen, horregatik emaitza gustagarria izan zen.

**Tolosako Udala****IRAKARRIA**

2010eko irailaren 28an Tolosako Udaleko Osoko Bilkuran Voitheko Artxiplaza Plazako 105 parking plazaren kontzesioa onartu zen. Hori dela eta, eskabideak egiteko egutegia honako hau izango da:

- Astearte urriak 5etik aurrera Udaltxean eskabide orria eta dokumentazioa jaso daiteke.

- Ostirala urriak 8tik aurrera eskabide orriak udaltxean entrega daitezke.

2010ko irailaren 29a

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# 'Doltza' antzezlan eskainiko du Agerre Teatroak gaur Leidorren

**Antzerkia** » Maite Agirrek zuzentzen duen lana 20:30ean hasiko da; Tolosako hiru antzezle goko dira oholtzara.

## ASIERIMAZ

Agerre Teatroak *Doltza* antzezlan eskainiko du gaur Leidor aretoan, 20:00etan. Maite Agirrek zuzentzen duen lan honetan On Kixoteren istorioa kontatzen da, umorearen eta musikaren eskutik. *Doltza*n hiru tolosarrek parte hartzen dute: David Azurzak, Erik Probanzak eta Abarchic Salemek. Euskarazko antzezlan honetarako sarrerak Leidorreko leihatilan eta Kutxako kanaletan aurkitzen dira salgai.

## David Azurza, On Kixote

Tolosarrak urrats bat eman du bere antzezle ibilbidean lan honekin: «Orain arteko antzerkietan musikari gehiago izan naiz antez-

le baino. Oraingoan berriz, alde-rantziz da; aktore gehiago naiz musikari baino». David Azurzari On Kixote bera izatea tokatu zaio gainera lan honetan.

Erreterian estreinatuta zuten *Doltza* otsailean. Euskaraz eta erdaraz taularatu zuten eta jendearen harrera «oso ona» izan zela esan du Azurzak: «Jai bat izango balitz bezala da. Oso umoretsua da espektakulua. Puntu inprobisatu bat ere badu, bilatua den puntua, eta horrek freskotasan asko ematen dio antzezanari. Zuzeneko musika izateak ere laguntzen du».

Tolosako emanaldiaren ondoren, Zumaia, Elorrio, Gasteiz... etorriko dira. Ikusleak zer aurkituko duen galdetuta, *Doltza*ren nondik norakoak azaldu ditu tolosarrak: «Antzezanlean ere aktoreen konpainia bat osatzen dugu eta On Kixote interpretatzeko asmoa daukagu. Horrek umorea eta gauza desberdinak sartzeko askatasuna ematen dizu. Ikusleak, nik uste, nahiko istorio dibertigarria eta



David Azurza tolosarra On Kixoteren paperean, 'Doltza' antzezanlean. HITZA

## » DATUAK

- **Antzezlan.** *Doltza*, On Kixoteren egokitzapena.
- **Hizkuntza.** Euskaraz.
- **Nork.** Agerre Teatroa.
- **Zuzendaria.** Maite Agirre. 2010eko Max sarietan, euskarazko autorek onenaren saria jasozuen *Putzuak Lehortzen* lanarekin.
- **Eskualdeko partaideak.** David Azurza (Tolosa), Erik Probanza (Tolosa) eta Abarchic Salem (Tolosa).
- **Non.** Leidor aretoan.
- **Noiz.** Gaur, urriak 1.
- **Ordua.** 20:30ean.
- **Iraupena.** 70 minutu inguru.
- **Sarrerak.** 10 eurotan. Leidorreko leihatilan eta Kutxako kanaletan.

atsagina aurkituko du eszenatokian. Azken finean, ez da On Kixoteren kontaketa klasiko bat. Horren inguruan aktoreek zer pentsatzen duten eta euren arteko borrokak edo tirabirak ikusiko dira. Eguneroko bizitzako eszena batzuk On Kixoteren historiarekin nahastuko dira 70 minutu inguruko lanean». Horretaz gain, aktoreak oholtza utzi eta jendeartera jaitsiko dira, nolabaiteko hartu-emanasortuz.

# Izaskungo festa batzordeak eskerrak eman dizkie «denei»

## ERREDAKZIOA

Izaskun auzoko festa batzordeak eskerrak eman nahi izan dizkie aurtengo festak posible egin dituzten pertsona eta eragile guztiei, hala nola, «Arsenal, Emendek eta Izaskun elkartei, auzoko denda eta tabernei eta Otsabi auzo elkarreko gazteei; hauek gabe gure jaiak antolatzea zaila izango litzateke eta».

Bestalde, «esker bereziak»

eman dizkie Bonbereneari; TAK eta bere zuzendaritzari; Gaxpar Urkola, *Gaxpi*, eta Beñat Zubiria arraun zaleei; Vista Alegre txarangari; Zigor Sagarna musikariari eta Udaleko gazterriko zinegotziari. «Beraien lana goraiatzekoa izan baita».

Azkenik, «eskerrak auzora in-guratutako guztiei, hauek baitira jai herrikoiak indartzen dutenak. Datorren urtera arte!».

## L Laburrak

### Larumbatean Udalbiltzaren aldeko elkarretaratzea

**POLITIKA** » Udalbiltzaren aurkako epaiketak aurrera jarraitzen du Espainiako Auzitegi Nazionalan. Bien bitartean, auzipetuei elkartasuna azaltzeko, Udalbiltzaren aldeko sostengu taldeak elkarretaratzea egingo du bihar, urriak 2, Tolosako udaletxearen aurrean. Plaza Zaharrean egingo duten mobilizazio hau 12:00etan hasiko da. Sostengu taldeak eskualde guztira deialdia luzatu dute. Udalbiltzari babesa azaltzeko elkarretaratzearen parte hartzea gonbidatu dituzte herritarrek.

### Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior bihar Leidorren

**PAILAZOAK** » Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior pailazoek ikuskizuna eskainiko dute bihar, urriak 2, Tolosako Leidor antzokian. 17:00etan hasiko da emanaldia eta sarrerak 5 eurotan jarri dituzte salgai Leidorreko leihatilan eta Kutxako kanaletan. Ikuskizuna zazpi esketx-jolasekin osatzen dute eta parte hartzaileekin osatuta dago. Ohiko kantuak ezagunak ere abestuko dituzte hiru pailazo gazteek. Eskualdeko haur guztiak gonbidatu dituzte Txirri, Mirri eta Txiribiton Juniorren emanaldira.

## Eskuratu Gipuzkoako natur eremuetako mapen bilduma DOAN!

Jaso **urriaren 3an BERRI**arekin etorriko den **kartilla**, eta bete hurrengo egunetan argitaratuko ditugun kupoiekin.



**10 liburuxka:**  
4 parke natural:

Aiako Harria, Aizkorri-Aratz, Aralar eta Pagoeta

3 biotopo:

Leizor, Iñurritza eta Flysch Deba-Zumaia

Parketxe sareak • Talaia bidea

Ibilbide irisgarriak: Larraitz eta Arantzazu

**Bakoitzean hainbat ibilbide + guztia bilduko duen zorroa**



E **Elkarrizketa**

**Zizurkil** » Mendi lasterketetan munduko onenetakoa dela frogatzen ari da Nerea Amilibia; azkeneko proba hilaren 23an izango du Malaysiako Kinabalu mendian.

**IMANOL GARCIA**

Denboraldi bikaina egiten ari da Nerea Amilibia (Zizurkil, 1971) mendi korrikalaria. Mendi Lasterketen Munduko Kopan parte hartzen ari da eta hirugarren doa sailkapenean. Mundu guztiko 40 emakume inguruk parte hartzen dute Kopan. «Euskaldunik ez da behin ere azken sailkapenean podioan gelditu. Ea oraingoan posible izango den», dio korrikalari zizurkildarrak.

**Munduko Kopan lehenengo aldiz ari zara. Nolatan murgildu zara lehiaketa horretan?**

Aurreko urtean Gipuzkoan, Bizkaian... aritu nintzen lasterketan. Gorpuzaldiz nahiko ondo ikusi nuen nire burua. Nikez nuen asmo hori aurten, baina Euskal Selektzio-ko Gaizka Itzak deitu zidan eta probatzea pentsatu nuen, ea zer gertatzen zen. Egia esan nik neuk ez nuen espero hain ondo ibiltzea. Orain arte bigarren nioan, eta egin dugun azkeneko proban italiar bat sartu zait eta sailkapenean hirugarren noa orain. Azkeneko proba Malaysian dugu, urriaren 23an, eta hirugarren postu hori eustea da asmoa.

**Euskal selektzioarekin lehiatzen ari zara.**



HITZA

## «Nik neuk ez nuen espero Munduko Kopan hain ondo ibiltzea»

Parte hartu dezakezu selektzio baten baitan edo zure kontura joatea duzu. Euskal selektzioak bidaiak ordaintzen dizkizu eta horrela, noski, guretzat hobeagoa da. Beraiek deitu zidaten eta hiru ko-

rrikalari joaten gara probetan parte hartzera. Malaysiara ere hirurok joateko asmoa dugu.

**Azkeneko lasterketa hori nolako izango da?**

Beldurra diot. Oso gogorra izango da. Kinabalu mendian da lasterketa. Irteera 1.800 metrotan da eta 4.100 metrotara igo behar da. Igo eta jaitsi egin behar da eta guztira 21 kilometro dira. Bertikal baten modukoa da, baina hemen bertikalak 4 kilometro inguruak izaten dira eta hangoa 21 kilometro dira.

**Munduko Kopako gogorrena izango da?**

Lehenengoan Italian, Dolomitetan, egin genuena izugarri gogorra izan zen. 7.000 metro baino gehiagoko malda metatua zuen 43 kilometrotan. Oso gogorra egin zitzaidan. Mundu mailan gehienak maratoiak dira, oso lasterketa gogorrak. **Inguruan Zegama-Aizkorriko maratoiak dugu. Horrelakoak?** Hemen Aizkorrikoa jotzen dugu inguruko gogorrenetakoa. Gero kanpora ateratzen zara eta ikusten duzu hango garaiera duten mendiak ez ditugula hemen.

**Gogortasuna gehituko dio garaiera handietan korritzeak.**

Bai. Ni behin ere ez naiz garaiera handietan ibili. Orain Malaysiako probarako prestatzeko Alpeetara joaten saiatuko naiz.

**Garaiera horietan oxigeno falta sumatzen duzu?**

Ni aurten gehien igo naizena Chabertonera, 3.200 metrotara, izan da. Hor nahiko ondo ibili nintzen. Kostatu zen horraino igotzea, baina ez nuen nabaritu ezer berezirik. Baina Malaysiakoan mila metro gehiago dira eta ez dakit nola joango den.

**Euskal Herrian, Portugalen, Frantziaren eta Italian egin dituzu orain arteko lasterketak. Euskal Herriko Zegama-Aizkorrikoa izan da. Nola joan zen lasterketa hori?**

Bigarren egin nuen bertan. Portugalen ere bigarrena egin nuen. Frantziaren Alpeetan aritu ginenean bosgarren egin nuen. Italian Dolomitetan zazpigarren egin nuen.

**Eta Italiako izan zen gogorrena?** Gogor-gorra izan zen. Beti esaten zergatik ez duten jartzen maratoi gogor bat... Italiatik asetuta etorri naiz oraingoan.

**Esan duzun bezala, Italiakoaren ondoren sailkapenean bigarren postutik hirugarrenera pasatu zara. Zein dira zure aurretik doazanak?**

Bi italiar dira. Bigarrenak ez dizkit puntu oso kentzen, baina ikusten dut oso emakume gogorra dela.

**Eta ikusita azkeneko lasterketaren gogortasuna, zer espero duzu egitea sailkapenean?**

Nik ahal badut sailkapeneko hirugarren postuari eutsiko diot.

**Sailkapenean laugarrena dagoena urrutu duzu?**

Nahiko urrutu daukat baina nik

behintzat bukatu beharra daukat lasterketa eta mentalitate horrekin noa.

**Esan duzun bezala, hain aurrean egotea ez zenuen espero.**

Gaizka Itzari esaten nion ez pentsatzeko nirekin podioa egingo genuenik. Aizkorri hasi nintzen eta asko sufritu nuen. Hor nire asmoa podioa egitea zen. Hasi nintzen eta pentsatu nuen podiorik ezingo nuela egin: Sancti Spiritutik zortzigarren pasatu nintzen. Baina besteak oso azkar hasi ziren. Nik uste nuen maila horretako emakumeek gehiago kontrolatu behar zutela, baina hor ez zuten kontrolatu. Azkeneko aldapan, Urbian, esan zidaten aurrean bigarrena nuela. Ez nuen sinesten, baina jendeak esaten zuenarekin gidatzen nintzen, nik ez bainekien zein postutan nindoan. Batzuk pasatu nituen, baina...

**Eta harrapatu zenuen.**

Harrapatu nuen bigarren zahoana, italiar bat, lur jota zahoana. Esan nion nire buruari hori zela nire aukera eta aurrera egin nuen. Aurten hiru handiak egiteko asmoa nuen, 100 kilometrokoa, baina ikusi nuen ondo ari nintzela Kopan, eta utzi egin nuen badaezpada. Proba hori eginez gero ez nintzen Kopan horrela ibiliko. Pena handiarekin utzi nuen, baina orain poza ematen dit. Hemendik urtebetera edo bira egingo dut.

**Malaysiarako entrenatzeko Alpeetara joateko asmoa duzula diozu.**

Bi asteburuetan Alpeetara joan nahi dut, garaiera horietan pixka bat entrenatzeko.

**Eta bestela egunero entrenatzen aritzen zara?**

Aurreko asteburuan ere bi lasterketa egin nituen. Gutxi samar ari naiz entrenatzen; luzaketa batzuk. Aste honetan nahiko nekatuta ikusten naiz. Italiako maratoiak nahiko pasada handia eman dit. Aste hau nahiko lasai hartu dut, ikusi dudalako asteburuan muskularki nahiko nekatuta ibili naitzela. Hurrengo igandean lasterketa txiki bat egin nahi dut eta gero hurrengo bi asteetan Malaysiako prestatu.

**Munduko Kopakoez gain beste lasterketa batzuk ere egiten ari zara, ezta?**

Bai. Hemen ateratzen diren guztiak. Denera denboraldi honetan 23 lasterketa egin ditut. 20 irabazi ditut, baina lehenengo urtetik jaisten ari naiz, laz gehiago irabazi bainituen. Aurten maratoi asko ari naiz hartzen eta muskularki nekatuxeko sentitzen naiz.

**Munduko Kopako lasterketekin bidaiatzeko aukera duzu.**

Bai, leku ezberdinetara joateko aukera izan dut. Nire ilusioa da Malaysiara joatea. Interneten ikusi dudanez oihan batetik ateratzen zara eta nik uste lasterketa polita izango dela. Aurrean sufritu eta gero zenbait egun hartuko ditugu turismoa egiteko.

Eskuratu  
**Gipuzkoako  
natur eremuetak  
mapen bildur**

Jaso **urriaren 3an** BEF etorriko den **kartilla**, eta bete hurrengo egu argitaratuko ditugun k

**10 liburuxka:  
4 parke natural:**

Aiako Harria, Aizkorri-Aratz, Aralar e



**E Elkarrizketa**

**ANTONIO ALUSTIZA** Artzaina

# «Txakur guztiak ez dira berdinak, batzuek ez dute lehiaketarako balio»

**Areso** » Oñatiko Nazioarteko Artzain Txakurren Txapelketa irabazi du Antonio Alustiza aresoarrak lehen aldiz. 'Tiki' txakurra izan zen txapelduna.



TXELU ANGOTIA-GEREDIAGA ELKARTEA

**AIZPEA ESNAOLA (BERRIA)**

Tiki Gorbeiaiko artzain txakurra izan zen txapeldun igandean, Oñatiko 51. Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketan. Zazpi urte ditu txakurra, eta jabearen esan apalak arintasunez bete zituen, eta Antonio Alustizaren isiltasunak ere ongi interpretatu zituen. Hura izan zen artaldea ondoen menderatu zuen txakurra. Alustizak baserriko bizimodua duela urte batzuk utzi zuen, baina bere denbora librean artzain lanak egitera joaten da. Abuztuan hasi zen Tiki Oñatiko txapelketarako prestatzen.

**Espero al zenuen igandean irabaztea?**

Ez, ni beti bezala lana txukun egitera joan nintzen; ongi atera zitzaidan, eta irabazi nuen.

**Beste urteetan ere ibilia zinen Oñatiko txapelketan?**

Bai, hamahiru urtetan izan naiz. Bigarren eta hirugarren egin izan dut, atzerago ere geratu izan naiz, baina lehenengo postuan inoiz ez.

**Azken bost urteetan Joxe Mari Jauregik Bizkor-ekin irabazi du, aurten, berriz, beste txakur batekin lehiatu behar izan du, ezta?**

Bai, oraingoan txakur berriarekin lehiatu da, baina, hala ere, podi-mera igo da hirugarren postuan.

**Bizkor-ren falta sumatu al da?**

Bai, txakur oso ona zen. Jada zahartuta zegoen, baina horrek ez du esan nahi deus egingo ez zuenik. Joxe Mari Bizkor-ekin txakur berriarekin baino lasaiago joango zela uste dut, baina horrela tokatu zaio, eta orain Bizkor ez dago.

**Txakurrari zainketa berezirik egiten al diozu?**

Ez, zainketa berezirik ez, egunero lana. Abuztuan lehiaketak egiteko denboraldia hasten denean, orduan banderak erakutsi, eta gainerakoak.

**Egunero joaten al zara Tiki-rekin mendira?**

Bai, gehienetan. Mendira edo bordara, ardien ingurura behintzat, ia egunero.

**Zaila al da txakurra kasu egitea lortzea?**

Niri ez zait iruditzen, nire eginbeharra hori da. Nik gauzak errepikatzen dizkiot, eta berak ulertu eta egin egiten ditu; sekretua errepikatzea da.

**Eta txakurra txikitatik ezagutzeta?**

Bai hobe izaten da txakurra txikitatik hartzea. Nik izan ditudanak behintzat hala izan dira, eta horrela gustura aritzen naiz.

**Nabari duzu zure txakurra hartzen duzunean edo beste batena?**

Noski, txakur guztiak ez dira berdinak. Nahiz eta nire txakurra izan, badira batzuk lan horretarako balio ez dutenak; nik baditut exeean beste txakur batzuk horretarako balio ez dutenak baina etxeko lanak egiteko onak direnak.

**Nola jakiten duzu txakur batek**

**txapelketetarako balio duen ala ez?**

Joera bat nabaritzen zaio txakurrari. Ez dakit nola esan, nire agintuetara aise jartzen dena. Beste batzuk bere gisara ibiltzen dira, eta lan honetarako ez dute balio.

**Arrazak ba al du zerikusirik?**

Ez, nik orain Gorbeiaiko arrazakoa daukat, baina izan dut betiko etxeko txakur iletsu bat, eta hau bezain gustukoa nuen.

**«Gauzak errepikatzen dizkiot, eta berak ulertu eta egin egiten ditu, sekretua errepikatzea da»**

**Beste txapelketarik ba al duzu?**

Txapelketarik ez, erakustaldiak ditut orain. Txapelketak bukatu dira.

**Irailean bukatzen da denboraldia?**

Bai, abuztuan hasten gara Nafarroako txapelketarekin, ondoren Euskal Herrikoa egin genuen, eta aurreko igandean nazioartekoa izan genuen Oñatin.



**Xake Txapelketako irabazleak**

**ANOETA** » 7 eta 12 urte bitarteko 40 haurrek parte hartu dute irailean zehar jokatu den Xake Txapelketan. Oier eta Iraia Otxoa anai-arrebak, Unai Nogales, Alejandro Herrero, Irati Irazusta, Mikel Descalzo eta Mikel Sanchez izan dira irabazleak. Sariak, herriko tabernek jarri dituzte: Itzuli, Arkupe, Haizea, Buztina, Goikoetxea eta Laia tabernek. E.MAZ

AUKERA HANDIA ETA GUZTIA

# Kalitatezkoa

**EDARIAK**

**ELIKAGAIK**

**JANTZIAK**

**DISKOAK, LIBURUAK, DVDAK...**

**ESKULANCINTZA**

**400**

HERRIETAN

SARTU ETA EROSI GUREAN

www.euskalherriko **PLAZA**.com



Biharko egunez, Aurrera elkarteko kideek ingurutxoak dantzatzeko plazan, bazkalostean. ASIER IMAZ

## Aurrerakoek beraien eguna ospatuko dute bihar

**Leitza**» Kirol elkarteok laugarren urtez antolatuta dute festa; kirola eta jaia uztartuko dituzte ekitaldi ezberdinekin.

### ERREDAKZIOA

Aurrera Kirol elkartearen arlo ezberdinetako lagunek osatzen dute. Bertan, dantzariak, pilotariak, futbol jokalariek nahiz zaldunak bilduko dira. Hauek denek beste behin ere bat egingo dute, eta beraien egun handia ospatu.

Bihar egun guztian zehar ospatuko da jaialdia. Hala, festa eta kirola uztartuz, herriitik barrena zabalduko dute urteurrenaren usaina. Aurtengoa, IV. Aurrera KE Eguna izango baita.

09:00etan txistulariak izango dira jaiaren hasiera iragarriko dutenak, eta hortik aurrera, pilota-

### » IV. AUERRERA EGUNA

#### Urriak 2, bihar

- **09:00.** Txistulariekin diana.
- **10:00etatik 13:00etara.** Haurrentzat Rokodromoa tirolina eta zaldi ibilaldia plaza inguruan.
- **10:30.** Aurrerako 'juegos deportivosen' eskutik futbito partida plazan.
- **11:00.** Aurrera pilota eskolako pilotariak saioa plazan.
- **12:00.** Aurrerako Dantzarien dantza saioa plazan.

riek, dantzariak eta futbol jokalariek hartuko dute erreleboa.

Kirol elkarteko kide guztiek dute tokia biharkoan, eta modu batera ez bada, bestera, parte hartzeak aukera lutzatzen dute. Gainera, dei berezia lutzatzen diete leitzarrei, blusa beltza soinean jarri, eta honi, Aurrerako ikurra gehitzeko.

Bazkideek ere euren unea edu-

■ **13:00.** Incansables txarangarekin poteoa.

■ **14:00.** Aurrerako bazkideen bazkaria Karrapen.

■ **Bazkalostean.** Bazkideen ingurutxoak.

■ **Ondoren.** Incansables Txarangaren buruhandiek poteoa.

■ **21:30.** Luntxa Aurrera elkartearen egoitzan eta festarekin jarraitzeko gizon orkestra Aurrerako atarian.

kiko dute Aurrera Egunean. Lehenik bazkaria egingo dute Karrapen eta ondoren Ingurutxoak dantzatuko dute.

Haurrentzako nahiz helduentzako ekitaldiak izango dira egun guztian zehar. Berrikuntzen artean aipatzeko da, Juegos deportivosen eskutik ikusi ahal izango den areto futbol partida.



## Bengoa, ipuinak kontatzen izan da

**IBARRA**» Ines Bengoa ipuin kontalariaren bisita jaso zuten herenegun Ibarako haurrek. Urteei bakarrik utzi zieten sartzeko Benito Izagirre Kultur Etxean, eta gurasoek kanpoan itxaroten zuten bitartean, istorio zoragarriak entzun ahal izan zituzten Bengoaren ahotik. Libururik gabe, buruz zekizkien ipuinak kontatu zizkien. E.EZEZA

## Euskadiko Trontza Txapelketako finala bihar jokoan izango da

### ERREDAKZIOA

Maila Nagusiko Euskadiko Trontza Txapelketako gizonen finala jokoan da bihar Igantziko pilotariak. Ikuskizuna 18:00etan hasiko da, eta bertan lehiatuko da Aitor Roteta alkizarra Andoni Rezabal bikotearekin. Laugarren urte jokatuko da Txapelketa aurrez kanporaketa jokatuta. Aurtengo kanporaketa joan zen abuztuaren 4an jokatu zen, Elgetan, eta bertan sei bikotek lortu zuten larunbako finalerako txartela.

Barberena anaiek dute eskarmenturik handiena maila nagusiko finaleran, izan ere, biharkoa berderatzigarrena dute. Rezabal eta Rotetarentzat hirugarrena da. Iaz II. Mailako txapela jantzi zuten.

## Laburrak

### Gipuzkoako Txapelketako partidak asteburuan

**PILOTA**» Gipuzkoako Txapelketaren jardunaldi berri bat jokatuko da asteburuan. Zazpi-Iturriko pilotariak etxean, Arnezketan, hainbat partida jokatuko dituzte gaur 20:00etatik aurrera. Aurrera Saia-zekoek berriz, Gipuzkoako Txapelketaren baitan, Tolosako Beotibar pilotariak izango dute hitzordua biharkoan. Pilota jaialdi hau ere 20:00etan hasiko da.

### Gripearen aurkako txertoa herrian hartzeko aukera

**OSASUNA**» Ibarako Osasun Zentroan, Lizartzan eta Berastegin egunero jartzen dituzte gripearen kontrako txertoak baina herri txikiak ere joaten dira egun batzuetan horretarako. Berrobin, gaur eta urriaren 4an, 9:00etatik 10:30era eta Gaztelun astelehenero 09:00etatik 10etara.

## Hilberria

**AGUSTINA LOPETEGI KORTAJARENA**  
ANDREA  
Irailaren 30ean hil da, 68 urte zituela.  
-Goian bego-

Bere senarra: Jose Luis Tobes Lasa; seme-alabak: Eguzki, Asier eta Anna, eta Haritz; bilobak: Mireia eta Lierni; anai-arrebak: Eugenio (†) eta Isabel; ezkon anai-arrebak: Iñaki eta Maitte, Marcos eta Izaskun, Ramon eta Loli; ilobak, lehengusak eta gainerako ahaidak.

Haren animaren alde otaitz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezte! **OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIRETAN** Ibarako **SAN BARTOLOME** parroki elizan izango den elizkizunera. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Iriburu 2-B

**BELAUNTZA**,  
2010eko  
urriaren 1a

**AGUSTINA LOPETEGI KORTAJARENA**  
ANDREA  
Irailaren 30ean hil da, 68 urte zituela

Gero arte izaba maitea, nahiz eta gaur agur esan behar izan. Beti barren-barrean gurekin izango zara.

Zure ilobak: Ainara eta Joseba, Amaia eta Igor, Iñigo, Isaak, Marcos, Izaskun eta Iban, Amaia eta Raul, Patxi; bilobak: Eneritz, Mattin, Beñat, Eneko eta Ohian.

**IBARRAN**,  
2010eko  
urriaren 1a

**AGUSTINA LOPETEGI**

Isilik eten zaio ehuleari haria eta eguzkiari argia. Berrituko ditinagu garaiak eta hire mintzo alaiak Agustina!

**Hire lagunak**



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetaledea:** 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

**BERTAKO HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Antzerkia

■ **Tolosa.** Agerre taldearen *Doltza* antzezlan, 20:30ean Leidorren.

### Deialdiak

■ **Leitza.** Bizikleta alokairuaren erabiltzaile izango diren bizilagunen artean ezagutzera emateko, Plazaolako Partzuergo Turistikokoak tailerra prestatu du Leitzaoko Plazan, 17:30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.  
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneri eta iritzien erantzukizunik.

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Oinatz Goñi Balerdi (Amezketan).**

Gaur 2 urte. Zorionak eta muxu asko familia guztiaren partetik.

# Zortzi onenen unea

**Gizartea** » XII. Hitza Argazki Lehiaketako zortzi finalistak igandean argitaratuko ditugu; bozka ematea harpidedunei dagokie.

### ERREDAKZIOA

Udako oporretako argazki ugari jaso ditugu XII. Hitza Argazki Lehiaketan parte hartzeko. Bada, lehiaketaren bigarren zatian sartu gara, eta guztien artean zortzi finalistak aukeratu ditugu HITZA-ko epaimahaia. Horiek igande honetan argitaratuko ditugu, eta urriaren 8ra bitarte harpidedunek izango dute argazki onenari bozka emateko ardura.



### PAKISTAN

Ibon Azpilikueta: «Abuztuan Pakistanez asko hitz egin da, baina denbora aurrera doan heinean, beste berri batzuk hartu diete lekua; beraiek han daude eta behar gaituzte. Ezin ahaztu ikusi ditugun begiradak». LAZPLIKUETA




### ITALIA

Leire Amonarrirek Italian, Napolin, ateratako argazkia bidali du: «Italiako hirien eromenaren ondorengo patxada Napolin». LEIRE AMONARRIZ



### OÑATI

Nerea Urteaga: «Nere iloba Junerekin uztaileko arratsalde batean Oñatin». NEREA URTEAGA



### KANADA

Jone Amonarri: «Kanadan ateratako argazkia; lagun amerikarrekin Banff-era egindako bidaiaren zati zoragarri bat». JONE AMONARRIZ



### TOLOSA

Jone Gallastegik Kenian zebrei ateratako argazkia aukeratu du XII. Hitza Argazki Lehiaketan parte hartzeko. JONE GALLASTEGI



### DONOSTIA

«Abuztuko arratsalde batean Donostian ateratako argazkia». OIHANA IRAZUSTA